

Gure produktua sehaska motorduna izango da, Pikler materiala eta metodologia kontuan izanik. Honek hezitzaile eta helduen gorputz mugimendua gutxiagotzea lortzen du. Sehaska motordunak, haurra lokartuko du mugimendu ezberdinak burutuz eta hura lokartzean sehaska gelditzeko aukera izango du. Gainera, urrutiko aginte bat egongo da mugimendua eta abiadura kontrolatuko duena. Horrez gain, kamara bat izango du, mikrofono batekin, haurraren mugimenduak behatzeko eta soinuak entzuteko. Haurraren loa errazteko, gure mugikorretik musika lasaia edota lotarako kantak jartzeko aukera izango du ere.

Pikler sehaska motorduna nobedadea da, sehaska motordunak jada existitzen dira baina produktu hau ez dago hain zabalduta. Guk sortutakoa, Pikler sehaskan oinarrituta dago, baina Pikler sehaska tradizionalari, teknologia berriak gehituz, produktu berri bat sortuko dugu, nobedadea izateko.

Esan dugun bezala nobedadea da eta prestazioa ere; izan ere, sehaska klasikoaren hobekuntza da, teknologia berriei esker, produktu klasiko honen hobekuntza egingo dugu. Horren harira, esan bezala urrutiko aginte bat izango du: soinua, mugimendua eta abiadura kontrolatuko dituena. Horrez gain, kamara, mikrofonoa eta musika izango du, gurasoen edo hezitzaileen onurarako. Baliabide hauekin, gurasoak lasaiago egoteko aukera izango dute beste gauza batzuk egiten dituzten bitartean.

Produktu honek lana errazten du, hau da, betiko sehaskak manualki mugitzen ditugunez, honek berezitasun bat izango du, hau da, ez dugu esfortzurik egingo eta lasai joan gaitezke beste leku edo zeregin batera, beti ere, adi gauden bitartean.

Gure bezeroentzako egokitu dezakegu sehaska, beraiek eskatutako moduan, tamaina, luzera, altuera, modeloa... Pertsonalizazioa emateko.

Gure sehaska Pikler marka eta modeloa izango da, oso ospetsua Budapestetik etorritakoa. Esan dugun bezala, hobekuntza eta nobedade bat izango da, baina hala ere Pikler sehaskan oinarritua, horrek dakarren prestigioarekin.

Horrez gain, honako produktu hau erabilerraztasuna da; izan ere, urrutiko aginte, musika eta motorrari esker erabiltzeko erraztasunak izango ditu, hau da, haurraren zein helduaren beharretara egokituko da, erraz erabiltzeko.

